



# Eskerrik asko!

## ORDU ALDAKETA



Bihar, larunbatetik igandera ordu aldaketa izango da: goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

## Lasarte-Oria Bai! krosek ale berezia asteartean

Igandean Lasarte-Oria Bai! kroka dela eta, asteleheneko TXINTXARRI aldizkaria asteartean, urriaren 30ean argitaratuko dugu. Ale berezi honetan krosaren inguruko informazio zabalago eskainiko dugu.

## 4-6 KIROLA Lasarte-Oria Bai! Kroka izango da herrian igandean

Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoien XVII. edizioa izango da igandean ospatuko dena. Aurten 1 dortsala Kotxe Eskoba taldeak eramango du urteetako parte hartzeagatik. Kros Txikia berriz, ohi bezala nagusia bukatzerakoan burutuko da, 12:15ean inguru izango da txikiaren tarte.



**ALBA**  
ARROPA DENDA

Nagusia 65 behea  
Lasarte-Oria  
Tel.:943 574450

Gu ere, euskararekin!

Jantzi gurekin udazkenean ere

KOOKAI  
NAFNAF  
YERSE



Neure kabuz



**Unai Muña**

Noiz itzuliko haiz seme/alaba?

Gauza gutxi banatzen gaituzte politikak beste, erlijioak eta futbolak salbu, noski. Politikariak, elkarbizitza solidarioa eta gizarte politika koherenteak eragin ordez, mutur desberdinetan kokatzen eta konfrontatzen gaituzte. Herritarrok erabakiak hartu beharrean, nork erabaki hautatzen dugulako, akaso.

Euskal gatazka arrazionala eta identitarioa izateaz gain, emozionala ere bada, minaren herentzia, alegia. Hamaika hildako, torturatu, atxilotu, deportatu, bortxatu, iraindu, baztertu... suposatu duena, gorrotora ohitu gaituena.

Inork, onak eta txarrak, garaiak eta galtzaileak, borroeroak eta biktimak... bereizi nahi baditu, egin dezala, baina nik oso argi daukat denok jarri dugula guretik amets gaizto hau egi bihurtzerakoan, denok. Ondorioz, denok eman beharko dugu zerbaite bidean, itenbide batetara helduko bagara.

Behin gatazka lapurtutako seme-alaba berriro magalean bildu gabe emango dute azken hatsa guraso askok, edo senide eta lagunek. Beste mordo batek, maiteak bidean galdu dituzten bezala. Ez al da garaia bakoitzari bere ardura politikoa eskatzeko eta normalizazio politikoa zein bake prozesua gorpuzteko?

ETAK jarduera armatua behinbetiko etetea erabaki duen legez, estatu espaniar eta frantziarrek neurriko erabakiak hartzea ezinbestekoa da, borroka molde politikoa soiletara mugatuz eurak ere.

Kolorea, elkartsuna, askatasuna, maitasuna, irria... zabaldu behar ditugu lau haizetara, getifikazioz integrazioa salto eginez, noiz gehiago ez dadin guraso bat leihotik begira geratu seme-alaben zain, malako bat dariola.

- Noiz itzuliko haiz seme/alaba?  
- Agian, inoiz ez, baina beti biziko zara nigan, ama/aita.

Zorion agurrak



**Haizea**

Zorionak polita!  
Familia, koadrila eta lagun partetik.



**Nora**

Zorionak maitea, oso ongi ospatu zure eguna!  
11 muxu potolo!



**Manuel eta Maite**

Aurrerapen pixka batekin izan arren, ZORIONAK zuen ezkontzaren 40. urteurrenean! Zuen semearen partez, maitasun handiz!



**Nadia, Aitor eta Ibon**

Zorionak hirukote!!!!!! Zazpi muxu handi familiaren partetik. Ongi pasa zuen egunean.



**Dune**

Bederatzi urte eta mila zorion! Egun ona pasa aita, ama eta izanen partetik.



**Olaia**

Zorionak printzesa eta zazpi muxu erraldoi amona, ama eta aitaren partetik



**Maialen**

Zorionak Polita zure seigarren urtebetetzean familia guztiaren partetik.



**Danel**

Zorionak txiki, txoko-marrubizko muxuak amona, osaba eta izebaren partetik!



**Paula**

Zorionak guraso, Alex, aiton-amona eta osaba eta izeben partetik! Ondo pasa zure egunean muxu asko!!!



**Leire**

10 lore gure printzesarentzat! Zorionak!!

Azoka txikia

**Eskaintza inmobiliarioak**

- Logela alokairuan kultur etxetik gertu. Pertsona arduratsu, ez erretzailea eta lasaia bilatzen da. Interesa duenak telefono honetara deitu: 646 756555
- Logela alokairuan kultur etxetik gertu. Pertsona arduratsu, ez erretzailea eta lasaia bilatzen da. Interesa duenak telefono honetara deitu: 698 496114
- Pisua alokatzen da Lasarte-Orian. 9. pisua, hegoaldera begira, eguzkitsua. 3 logela, sukaldea, komuna eta 2 balkoi. 649 424 826. Josune.
- 116m2-ko aparteko pisua salgai edo alokairuan, Iñigo de Loyola. 2. Guztiz berrituta dago. 3 gela, 2 komun, jantzigela, egongela eta sukalde ederra. Sartzeko prest: 639 738 413
- Garajea alokatzen da Urbarten. Plaza zabala da, fagoneta bat sartzeko modukoa. Interesa dutenek 697 905 233

**Salerosketak**

- Hyundai 110 autoa salgai, lau urte eta 16.000 km bakarrik. 666 320 520

**Lan-eskariak**

- Emakumea nagusiak, haurrak zaindu, edota garbiketa lanetan aritzeko. Mirna 619 803199
- Lasarten bizi den esperientziadun emakumea etxeko lanetan aritzeko prest edozein ordutegitan, referentzia onak. Carmen Patricia 628 987 559
- Geriatria laguntzaileak adinduak zaintzen lan egingo luke. Esperientzia eta tratu ona. 680 983 527 Carlos
- Ume edo aiton-amonak zaintzen, etxeko edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Doris 943 40 40 15
- Mutil arduratsua eskaintzen da. Seriotasun handikoa edozein lanerako. 646 756 555
- Neska arduratsua esperientzia eta erreferentzia onekin orduko lana bilatzen du, haur, zein pertsona adinduak zaintzen. Harremanetarako, 639 274 396.
- Geriatria laguntzaile heziketa eta pertsonak zaintzen esperientzia duen emakumea eskaintzen da gauean edo edozein ordutegian ospitalean edo etxean dauden pertsonak zaintzeko.

Heriotzak Jaiotzak

**Jaiotza**

- Ixone Acuña Aizpurua, urriaren 16an.
- Irati Alonso Cristina de Souza, urriaren 16an.



Farmazia Goardiak

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

- Ostirala, 26**  
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Larunbata, 27**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Igandea, 28**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Astelehena, 29**  
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Asteartea, 30**  
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Asteazkena, 31**  
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Osteguna, 1**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Ostirala, 2**  
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Larunbata, 3**  
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Igandea, 4**  
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Chucha, Kardaberaz 48  
Hernani, Tel.: 943 551 793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala**  
Euskara Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA**  
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

## HAUTESKUNDEAK

LEGEbiltzARRA BERRITZEKO HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK LASARTE-ORIAN										
	2011ko urriak 21	2011ko azaroak 20	SASOETA	KULTUR ETXEA 1	UDALETXEA	ZUMABURU ikastetxea	LIBURUTEGI ZAHARRA	UDAL PABILOIA	KULTUR ETXEA 2	GARAIOETXEA
Hautesleak	13.610	14.148	3.250	1.640	1.188	1.558	1.720	2.288	876	1.090
Baliogabeak	50	76	17	5	0	6	13	7	0	2
Zuriak	100	119	22	8	6	13	7	16	9	19
Botuemaileak	9.603	9.885	2.340	1.097	1.030	1.256	1.180	1.419	544	737
PSE-EE	3.233	3.309	890	325	190	583	311	511	177	246
EH Bildu-Amair	2.241	2.446	562	294	253	167	366	336	144	119
EAJ	1.989	1.424	437	265	200	207	289	295	112	184
PP	855	1.653	206	112	36	170	87	108	52	84
EB-Berdeak	255		70	23	29	36	24	41	10	22
EB-EzkerAnitza	130	399	30	11	8	18	27	18	7	11
UPyD	197	208	44	21	10	29	31	28	17	17
Aulki Zuriak	124		31	15	14	11	8	24	6	15
Equo	66	113	14	8	2	12	5	16	4	5
PACMA	50	78	11	3	7	2	7	12	3	5

## PSE-EE garaile

3.233 bozka eskuratu ditu, EH Bilduk 2.241 eta EAJk 1.989

**Igandeko hauteskundeetan PSE-EEK eskuratu ditu emaitzarik onenak Lasarte-Orian, 3.233 boto, EH Bildu izan da bigarren indar politikoa, 2.241 botorekin eta EAJ izan da igogarik nabarmenena izan duena, 1.989 eskuratu ditu iazko aurreko hauteskundeetan baino 565 gehiago. Hauteskunde egunean ez zen gertakari nabarmenik izan.**

### Jon ALTUNA IZA

Urriaren 21eko hauteskundeetan herriko kutxetan PSE-EEK eskuratu ditu botorik gehienak, hain juxtu 3.233. Aurreko hauteskundeetan ere gutxi gorabehera antzeko emaitza izan zuten, 3.309 Kongresurako hauteskundeetan iaz azaroaren 25ean eta 3.147 Udal

hauteskundeetan maiatzaren 22an. 2009an Gasteizko Parlamentua berritzeke egin ziren hauteskundeetako emaitzekin konparatuz gero, jaitziera nabarmena izan du PSE-EEK, orduan gero lehendakari izan zen Patxi Lopezen alderdiak 3.816 boto jaso zituzten, igandean baino 507 gehiago.

EH Bildu izan da Lasarte-

Oriako bigarren indar politikoa hauteskunde hauetan, 2.241 botorekin. Boto batzuek galdu ditu aurreko bozketetatik. Kongresurako, iazko azaroan, Amairrek 2.446 eskuratu zituen eta Udal Hauteskundeetan 2.168 Bilduk eta 152 Aralarrek.

EAJk emaitza onak izan ditu aurreko hauteskundeekin alderatuz. Igandean 1.989 boto eskuratu zituen, iazko maiatzaren 1.091 eta azaroan 1.424. Dena den, Gasteizko legebiltzarraren berritzeke eta lehendakaria aukeratzeko 2009ko hauteskundeetan boto gutxi batzuek gehiago jaso zituzten, 2.092 hain zuzen ere.

## Euskal jantzi tradizionalak egiteko ikastaroa azaroan zehar

Josten ikasteko ikastaroa antolatu du Ttakun elkarteak. Azaroaren 6an hasita giro onean, 10-12 lagunek, Euskal jantzi tradizionalak nolakoak diren ikusi eta gero nahi duenak berea egiteko aukera izango du aldi berean euskara praktikatu.

Aurreko urteetan bezala, Euskal jantzi tradizional dotorea norberak nahi bezala josi, egiteko aukera izango da Lasarte-Orian Ttakun Kultur elkarteari esker.

### Bederatzi saiotan

Azken urteotako arrakasta kontutan izanik, aurten ere bederatzi saiotako ikastaroa emango du Jone Artola irakasleak.

Izena ematen dutenek, neurriak hartu, patrioiak egin eta oihalak moztzen ikasteaz gain, josteko makina erabiltzeko aukera izango dute ere irakaslearen laguntzarekin lana eraztuz.

Jostungintza ikastaroak



Ikastaroan euskal jantzi tradizionala nolakoak den aztertu eta egiten ikasten dute parte hartzaileek.

duela bost urte hasi ziren eskaintzen Ttakunen eta oso harrera ona izan dute urte hauetan. Beste urtetan bestelako arropak mantalak, bainiak egin diren arren, aurten soilik baseritar jantziak egingo dira, ondoren Santo Tomas egunean, Eguberriaren edota Santa

Ageda egunaren bezperan jantzeko.

### Izena ematea

Ttakunek hainbat ikastaro antolatzen ditu euskararen erabilera bultzatu eta lagunarteko giro onean jardun ezberdinak egiteko. Azaroaren 6tik aben-

## ESKOLA KIROLA

### Saskibaloitopaketak kiroldegian

Eskola kirolean multikiroleko ekimenen parte hartzen duten LH3 eta LH4 mailako haurrek saskibaloitopaketa dute herriko kiroldegian bihar, larunbata.

4. mailakoek 9:30etatik 10:30etara burutuko dute kirol ekintza berezi hau eta 3. mailakoek berriz, 10:30etatik 11:30ak arte.

## LOTERIA

### Ostadarren gabonetako loteria salgai

Ostadar Saiarre Kirol Taldearen gabonetako loteria elkartearen bulegoan, Geltoki 25, eta Aldatzekua tabernan salgai dago dagoeneko eta nahi duenak eskuratu dezake. Kirol taldearen zenbakia 65667 da.

## IKASTAROA

### Lehen sorospenak DYArene esku

Ikastaro teoriko-praktikoa antolatu du herrian DYAk azaroaren 12tik 30era bitartean. Garaioetxean izango da ikastaro hau 19:00etatik 21:00etara eta lehen sorospenen oinarriko eza-guerak landuko dira bertan. Bihotz-biriken suspertzea, zauriak, hausturak, erredurak...egoera hauei nola aurre egin eta konpontzen erakutsiko da. Ikastaroa interesatuta dagoen edozeinentzat irekia da eta ez dira aldeaz aurreko ezagutzak beharrezkoak izango.

Ikastaroan irakasle arituko dira DYA Gipuzkoako Irakaskuntza Eskolako mediku, erizain eta monitorea. Honetan parte hartzeko 100 eurotako matrikula ordaindu beharko da eta talde murriztua izango da. DYAk erraztuko du ikastarorako beharrezkoa den materiala eta ikus-entzunezko baliabideak. Ondoren azterketak gainditzen dituzten ikasleentzat EHUra unibertsitateko 2 kreditu ematen ditu Sorospen titulu honek. Izena emateko 943 46 46 22 zenbakira deitu behar da.

## LIBURUTEGIA

### Ipuinaren ordua asteartean

Haur liburutegian antolatutako ipuin kontalarien egitarauaren baitan bigarren saioa izango da datorren asteartean, urriak 30. Honetan kontu kontari arituko da Bea Egizabal herriko ipuin kontalaria. Saioa ohi bezala haur liburutegian izango da 18:00etan. Kasu honetan 6, 7 eta 8 urte arteko haurrei zuzendutako ipuina izango da.

Interesatuek izena emateko, informazio gehiago jaso edota dituzten zalantzak argitzeke Ttakunera 943 37 14 48 telefono zenbakira deitu beharko dute. Gogoratu nahi da ikastarorako partaideen kopurua mugatua izango dela eta 10-12 lagunentzat tokia egongo dela soilik.

Gainontzean ikastaroagatik 22 euro ordaindu behar dira eta Ttakuneko bazkideek berriz 20 euro ordainduko dituzte. Parte hartzaile bakoitzak jantzia egiteko materiala ere eraman beharko du, oihalak, orratzak, botoiak, besteak beste norberak bere gustuko kolore eta erara baseritar jantzi polit eta dotoreak egin ahal izateko.

Euskal dantza jantzia nolako den ikusteko liburuxka bat kaleratu zuen Ttakun kultur elkarteak 2007. urtean eta jantzi tradizional horietan oinarrituta egingo dituzte ikastaroan parte hartzen duten jostunek euren jantzi bereziak.

TALDEA	URTEA	ORDUA	DISTANTZIA
A	2007	12h15'	100m
B	06/05	12h25'	150m
C	04/03	12h35'	Bira 1
D	02/01	12h45'	2 Bira
E	00/99	12h55'	3 Bira
F	98/97	13h05'	3 Bira

## Lasarte-Oria Bai! igandean

■ Kros txikia 800 hurren parte hartzea espero du antolakuntzak ■ Helduen lasterketa 10:30ean hasiko da eta 10,5 kilometro egingo dituzte

Goizeko 10:30ean hasiko da igandean Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoian XVII.edizioa, korrikalariak 10,5km-ko ibilbidea egin beharko dute herrian barrena.

Honekin batera Kros Txikia ere burutuko da 12:15ak aldera. Honetan izango parte hartzeari erpreparatuz, antolatuak bost eta hamalau urte arteko 800 ume espero dituzte.

Iazko lasterketarekin alderatuta, aurtengo edizioan ez da aparteko herrikuntzarik izango. "Joan den edizioan Okendo plaza berreskuratua genuen eta bertan geratzeko asmoa dugu luzaraz" azaldu dute Ostadar S.K.T.ko ardurdunak.

### Lasterketa

Igandean azken urteetan bezala, ordu aldaketa tarteko 3:00etan 2:00ak izango dira. 10:30ean hasiko da Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoian XVII.edizioa.

Parte hartzaile elbarrituak

zertxobait lehenago aterako dira eta azken edizioetako ohiturari jarraiki, lasterketa hasi aurretik Erketz Euskal Dantza Taldeko dantzariak agurra egingo diete korrikalari guztiei.

Irteera puntua Frutas Ruiz fruta-dendaren parean izango da eta helmuga berriz, Okendo plazara iritsi baino pixkat bat aurrerago, Laubide bezala ezagutzen den bidegurutzean hain zuzen. Parte-hartzaileek 10.500 metroko ibilbidea bete beharko dute.

Lasterketa amaitzean Lasarte-Oriako kirol instalazioak erabiltzeko aukera izango dute kirolariak eta haibat opariren zozketatan parte hartuko dute kirol ekitaldiak ikusteko sarrerak, kirol materiala, afariak...

### Babesle falta

Lasterketa antolatu ahal izateko babesleak aurkitzea "geroz eta nekezagoa" dela azpimarratu dute Ostadarretik. "Hemen ez gaude kezatzeko moduan, baina egia da, sal-

buespenak salbuespen, laguntzaileen diru-sarrerak behera egin dutela eta ondorioz, izen-ematea bi eurotan igo behar izan dugu. Ez da izan gustuko erabakia baina krosak herrian giroa sortu, kirola sustatu eta kirolarekin gozatzeko aukera emateaz gain, badu beste helburu bat, Ostadar S.K.T.ko talde guztiak finantziatzea".

### Kros Txikia

Nagusien lasterketa eta sari-banaketa ekitaldia amaitzean, 12:15ak aldera, Korrika Festaren hamabigarren edizioa hasiko da. Antolatuak bost eta hamalau urte arteko 800 korrikalari inguru espero dituzte. Sei mailatan banatu dituzte, eta adinaren arabera 100, 150, 400, 800 eta 1.200 metroko ibilbideak osatu beharko dituzte. Izen-ematea Ostadar S.K.T.-ren egoitzan egin behar dute edo egunean bertan. Haur bakoitzak 5 euro ordainduko ditu eta trukean, kamiseta eta domina jasoko dute besteak beste.

- Tren Geltokia
- Kilometroak
- Informazioa
- Izen ematea
- Aparkalekua
- Konsigna
- Dutxak

## Materiala jaso

Iaz dortsalak, txipak eta kamiseta teknikoak bezperan banatu zituen Ostadarrek lehen aldiz eta pasatako korrikalari kopurua kontutan izanda, 700 baino gehiago izan ziren, "aurten gauza bera egingo erabaki dugu" azaldu dute antolatuak.

Aurten materiala jasotzeko bihar, larunbata, Mitxelingo frontoian izango da aukera 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30ra arte. Bertan jaso ahal izango dira dortsalak, txipak eta kamiseta teknikoak. Igandean, berriz, goizeko 9:00etatik 10:00ak arte egingo da banaketa. Antolakuntzatik korrikalari guztiei, eta batez ere herritarrei eskatzen zaie ahal den neurrian materiala larunbatean jasotzeko lasterketa egunean lasaigo ibiltzeko. Dortsalak, txipak eta kamiseta teknikoak jaso ahal izateko korrikalari egiaztagiriren bat aurkeztu beharko dute.

# ANAIAK JANTZI-DENDA

**ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA!**

Gu ere euskararekin!

Kale Nagusla 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386



## ATLETISMOA.-

Juan Luis Ieregi, Juantxo Prieto eta Txema Esnal Lasarte-Oria Bai! Kroseko erratzak

# “Azkenen eskerrak jaso ditugu beti”

- ▶ Hamabost urtean krosaren isatsa izan den koadrilak eramango du aurten 1 dortsala
- ▶ Ondo pasatzea eta larri dabilzan korrikalariak animatzea izan da urtero euren helburua

Mozorrotu eta erratzak aldean dituztela egingo dituzte aurten ere XVII. Lasarte-Oria Bai! kros Herrikoia 10 kilometro eta 500 metroak datorren igandean goizeko 10:30ean hasita. Urtero bezala, kirola lehia soilik ez dela erakutsiz eta atzean ezinean doazen korrikalariak animatuz, baina aurten 1 dortsalarekin. Ostadar elkarteak, krosaren antolatzaileak, euren lana aitortu eta ohore hori eman die.

Jon ALTUNA IZA

Kroseko gauzarik bitxiarikoa da urtero parte hartzaile guztien atzetik joaten den korrikalari koadrila. Mantsu joaten dira, moztarria eta erratzak aldean dituztela, kirola sofitu gabe, ondo pasatuz egin daitekeela uste dutelako. “Dena ez da irabaztea eta markak haustea, kirola egin daiteke ondo pasatuz” kontatu digute Juan Luis Ieregi, Juantxo Prieto eta Txema Esnalak.

17. krosa izango da Ieregi-entzat, ez du sekula hutsik egin, Prieto ez zen iaz atera ebakuntza bat zela medio eta Esnalek bost egin ditu: “aipatu nuen Krosaren parte hartzeko asmoa eta azkenetarikoa izango nintzela; orduan “Zergatik ez zara ateratzen eskoba bezala?” galdetu zidaten eta horrela hasi nintzen. Nahi duena atera daiteke atzeko koadrilarekin”.

**Lehen Dortsala eskainita, esker ona adierazi dizue Ostadarek, pozik al zaudete?** Pixka bat bai. Beste batzuek esaten digute, behin hau

emanda erretiratu egingo gaituztela. Egia esan, poza eman digu.

**Lan ona egiten duzuen seinale?** Bai, batez ere, azkenak doaznak animatzeko intentzioa izaten dugu, eta ondo pasatzeko.

Kirola ez da bakarrik atletak eta onak direnentzako, kirola zabaldu egin behar da. Kontua ez da bakarrik markak haustea, ondo pasatuz ere egin daiteke kirola, hori izan da beti gure helburua eta azkenei lagundu egiten diegu.

**“Los últimos serán los primeros” esaera bete da oraingoan, lehen dortsala azkenentzat...** Bai, gu beti bezala aterako gara, hori bai, bat zenbakia-rekin.

**Urte askotan atera zarete...**

Bai, lehenengo krosa normal bukatu eta bigarrenean atera ginen erratzekin lehenengo aldiz. Ordutik, koadrilak ez du hutsik egin. Jende asko ibili da, batzuek urteren batean kale egin dute, beste batzuek utzi egin dute eta berriak ere hasi dira. Juantxo eta Kiki gara egoskorrenak.



Esnal ile-horiarekin, Ieregi beltzararekin eta Prieto zapiarekin, duela bi urte.

**Nolatan sortu zen kontu hau?**

Behobia-Donostia proban ikusten genuen zer ondo pasatzen zuten Iparraldeko koadrilan. Orduan palan jokaten genuen eta koadrilakoez esan genuen, “Zergatik ez gara ateratzen emakumez jantzita, ezagutzen ez gaituztela, azkenak eta eskobarekin”. Horrela hasi zen.

Azken metroan seme-alabak ere etortzen ziren gurekin, oso polita zen. Orain ume askok egiten dituzte azken metroak gurasoekin.

**Pentsatu al duzue aurten zertaz moztarrotuko zareten?**

Badaukagu ideien bat, diferente aterako gara, baina

sekretua da, ez dugu esango.

Urtero egin dugu aldarrikapen edo protestaren bat. Batean presoen alde, bestean, gasolioaren igoeraren aurka, sudur gorriarekin pailazoen alde, baserriar jantzita hauen arazoak salatzeko ala erraus-tegiaren aurka...

Ez dugu bakarrik erratza eraman.

**Korrika egiteari baino, lehiari kentzen diozue pisua, ezta?**

Kirola ez da bakarrik sofituztea, egin daiteke kirola ondo pasatuz. Bidean pare bat zer-beza hartu, jendea zirikatatu

eta hori bai azkenei asko laguntzen diegu: animatu, ura eman... Krosa amaitzerakoan beti ematen dizkigute eskerrak.

Iaz 85 urteko korrikalari oso zaharra etorri zen Asturiastik, ibilbide osoa berarekin egin genuen eta esan zigan guregatik ez balitz ez zela iritsiko. “Segi pixka bat gutxi falta da eta” esaten genion.

Animatu nahi ditugu koadrilak elkarrekin atera daitezten, ez da bakarrik korrika lehenengoak iristea, baizik eta koadrilak elkartu eta koadrilan korrika egitea.

Elkarrizketa osoa txintxarri.info webgunean

## KIROL AGENDA.-

### FUTBOLA

Larunbata 27  
 Urnieta, 10:30ean  
 Urnieta-Ostadar  
*Infantilen Ohorezko maila*  
 Urnieta, 12:00etan  
 Urnieta B-Texas Lasartearra  
*I. Kadetea*  
 Zubipe, Hernani, 12:15ean  
 Hernani-Ostadar  
*Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga*  
 Zubietan, 16:00etan  
 Ostadar-Zumaiaiko  
*Jubenilen Ohorezko maila*

Igandea 28  
 Harane, Usurbil, 10:00etan  
 Ostadar-SANSE I. Infantila

Ubitarte, Andoain, 11:00etan  
 Euskalduna-Texas Lasartearra  
*I. Erregionala*  
 Arizti Handi, Lazkao, 12:00etan  
 Ostadar-Tolosa  
*Alebrina*  
 Harane, Usurbil, 11:30ean  
 Ostadar-Urnieta  
*I. Kadetea*  
 Cesar Benito, Donostia, 17:30ean  
 Intxausti-Ostadar  
*Emakumezkoen maila*



### ARETO-FUTBOLA

Larunbata 27  
 Kiroldegia, 17:00etan  
 Aldaz H.K.-Santurtzi  
*Nazional III. maila*

### PILOTA

Larunbata 27  
 Hernani, 15:30ean  
 Hernani 4-Intza  
*Eskuz banaka, infantilak 1. urtea*  
 Hernani, 15:30ean  
 Hernani-Intza  
*Eskuz banaka, 1. jubentila*  
 Michelingo pilotalekua, 16:00etan  
 Intza-Oiarpe 3  
*Eskuz banaka, infantilak 2. urtea*

Michelingo pilotalekua, 16:00etan  
 Intza-Antigua  
*Eskuz banaka, II. kadetea*  
 Michelingo pilotalekua, 16:00etan  
 Intza-Tartaloetxe  
*Eskuz banaka, II. nagusia*

### ATLETISMOA

Igandea 28  
 Zumarraga, 10:00etan  
 Herriko hainbat atleta Goierrri  
 Garaia mendi lasterketa-Las 3  
 Cruces proban izango dira.  
 Lasarte-Oria, 10:30ean  
 Ostadar SKT-k antolatuta Lasarte-Oria Bai! krosa izango da herriko kaleetan.

### TXIRRINDULARITZA

Igandea 28  
 Biyak Bat, 08:30ean  
 Ostadar SKT-ko zikloturistik  
 irteera dute Asteasu-Izaskunera.  
 Durruma Kanpezu, 09:30ean  
 Herriko hainbat txirrindularik  
 Durruma Kanpezuko XX. mendi  
 txirringa martxan parte hartuko  
 dute.



— Agenda —

Larunbata 27, 18:00etan, Manuel Lekuona Kultur-etxean



Itsasoko kontuak

“Azken Portua” haurrentzako antzerkia eskainiko du Dejabu antzerki taldeak. Didi eta Gogo dira Azken Portuko biztanle bakarrak, eta denbora luzea da ez dutela barkurik ikusi itsaso zabaletik portura iristen. Gogo zaharrak ez du jada egun hura gogoratzen.

Kukuka antzerki eskolak proposatutako saioa. Sarrerak leihatilan 3,40 euro; interneten 3 euro.

urteko haurrei ipuin bitxi eta dibertigarriak kontatuko dizkie.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA  
Urria osoa

Sancho Pereg artistaren margoak ikusgai izango dira.



Astigarraga

Zinea

KULTUR-ETXEAN

Ostirala 26, 19:30ean

“Gazta zati bat” dokumentala ikusgai izango da.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA  
Igandea 28, 17:00etan

Haurren zinea atalaren barruan, “Madagascar 3” marrazki bizidunetako filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro.



Musika

Ostirala 26, 23:00etan

Kantaginjazz emanaldia izango da. Iñaki Salvador piano jole eta Ainara Ortega abeslariaren eskutik Euskal Kanta klasikoak jazz formatuan.



ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 26, 23:45ean

Punk Rock gaua izango da Sutura eta

Xuorum taldeen eskutik. Sarrera 5 euro. Kultur kale zikloaren barruko ekintza.

EL BAR DE MAU

Larunbata 27, 20:00etan

Defectos Comunes taldearen posthardcore doinuak eta The Animal Within taldearen alternative rock-a entzuteko aukera izango da.

Ipuin Kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Azteakzena 30, 18:00etan

Bea Egizabal herritarrek 6, 7 eta 8

Antzerkia

KULTUR-ETXEAN

Larunbata 27, 20:00etan

“Hil arte bizi” antzerki lana eskainiko du TXALO produkzioak. Sarrera 6 euro.

Usurbil

Antzerkia

SUTEGIKO AUDITORIOAN

Ostirala 26, 20:00etan

“Izan bedi emakumea” antzezlan eskainiko du Koldarrak antzerki taldeak. EHASEK antolatutako AZ Sarearen barruko ekintza. Sarrera 3 euro.

— Herritarren txokoa —

Euskararen 8. Maratoian aurkitutako gauzak

Euskararen 8. Maratoia amaitu eta garbiketa lanetan, honako gauza hauek aurkitu dira Okendo plazan zegoen karpan: atril bat, 2 jertse, Obrint pas taldearen txapa duen txaketa bat eta aterki bat.

Gauza hauen jabeak Ttakun elkartetik hurbildu daitezke hauek jasotzera.

Aterpeko Loteria

Aterpea Merkatarien Elkarteak Gabonetako Loteria jarri du salgai. Loteriako txartelak elkartearen osatzen duten denda edo komertzioetan daude eskuragarri.

Autobusa Baionara

Herrirak azaroak 10an Baionan antolatutako manifestaziora joateko autobusa jarriko da Lasarte-Oriatik.

Autobusean joateko Ilargi, Artizar, Gure Etxea tabernatan eta Xirimiri elkartearen daude izen-emate zerrendak.

Herriraren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, urriaren 26an Lasarte-Oriako Herrira mugitu

mendua kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Marrazki eta margo ikastaroa

Lasarte-Oriako auzo elkarteak antolatzen duen marrazki eta margo ikastaroko klaseak hasi dira. Hauek astezken eta ostiraletan dira, 18:30ak eta 20:30ak bitartean Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera ematen dute bulegoan gauza hauek daudela jasota, betaurreko graduatu batzuk, bi eguzkitako betaurreko, hiru mugikor, ezkontza eraztun bat, mp3 bat, larruzko poltsa bat eta mikrotxipen plaka bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesatuta dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbildu daitezela 09:00etatik 13:00etara.

— Hemeroteka —

Duela 1027 ale



Lasarte-Oriako errepide irteerak izango zituzten aldaketei buruzko erreportajea argitaratu zen 1994ko urrian. Honetan Txikierdiko bidegurutzeko eta Lasarte-Oria/Aritzeta loturako proiektuei buruzko informazio zabala eskaini zen. Lan hauek komunikaziorako onak eta ingurugiroarentzat txarrak zirela aipatzen zen ere erreportajearen.

Honetaz gain, Lasarte-Oriako Udalak horietan konpromezurik ez zuela jakitera eman zen. Javier Galparsoro Udaleko aparejadorearen hitzetan, “Lasarte-Oriako Udalak ez du lizentziarik eman behar lan horiek burutzeko, Foru Aldundiaren esku daude”.

Txikierdiko bidegurutzeko lanek bost hilabete iraungo zutela eta 185,5 milioko inbertsioa zela jakitera eman zen, baita hauekin Foru Aldundiak moldaketarekin istripuak eta kobxe-errenkak murriztea helburu zuela ere.

Era berean, Lasarte-Oria eta Aritzeta arteko loturaren lanak 1995eko irailetik 1997ko lehen hilabetera artekoak izango zirela aipatzen da erreportajearen eta 3.750 milioiko kostua izango zutela.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

## Ttakuneko zuzendaritzaren izenean **eskerrik asko** Euskararen 8. Maratoia aurrera ateratzen lagundu duten guztiei:

Abend, ADEGI, Agus Boveda, AHLO Ostalaritza elkarte, Ahuen, Ainhoa Aizpurua, Ainhoa Elizegi, Ainhoa Iribar, Ainhoa Oartzabal, Ainhoa Oartzabalen taldea, Aintzane Usandizaga, Aitor Atxega, Aitor Elizagire, Aitor Lasa, Aitor Unanue, Aitzol Etxegoien, Aizpea Izagire, Akroyoga, ALCER, Alex Tello, Alex Altuna, Alex Tetuan, Alkate eta zinegotziak, Amaia Agire, Amaia Tejeria, Amalur, Amaraun, Ana Iartzaren taldea, Anaia Jantzi denda, Ander Artetxe, Ander Rekondo, Andoni Iparagire, Andoni Otamendi, Ane Huizi, Ane Labaka, Ane Miren Zugasti, Ane Aldazabal, Arantxa Otaegiren taldea, Arantzazu Errazi, Arkaitz Illamendi, Arkupe tabema, Arregi Eraikuntzak, Arrieskalleta, Arteder, Artizar tabernak, ASPANOI, ATCko Saskibaloiko neska, Aurreko Maratoietako zortzikoteak, Auzolagun, Axier Gorostegi, Azpi, Babamun lehiaketako parte hartzaileak, Bakartxo Irazusta, Bakartxo Irazustaren taldea, Bakartxo Usandizaga, Banaiz Bagara, Bea Egizabal, Belen Insausti, Beltzak Rugby taldea, Beñat Bobillo, Beñat Eleizegi, Bideokliperako bihotza egiten lagundu zuten heritarak, Bideoklipeko merkataria, Bittori Arutiren taldea, Bixente Beltran, Bizker, Buenetxea Taberna, Burunzpe Guraso elkarte, Burutz Azpi elkarte, Emakumeen Zentro Zibikoa, Cesar Marcos, Comercial Hostelera del Norte, Dabid Egizabal, DBH4ko koadrila, Diego Egizabal, Domi Intxausti, Donetz Iradi, Dultzaineroak, DYA Erreskate Taldea, DYA Gipuzkoa, Earral Bertso eskola, Ebaristo Pikabea, Egoitz Zelaia, Enara Ieregin koadrila, Endika Garzia, Eneritz Balerdi, EPAko Lan eta lan beti lan antzerki taldea, Erketz EDT, Erketzeko txistulariak, Estitxu Gamendia, Etiopia Utopia, Euskaltel, Eva Olazagoitiaren taldea, Ezti Photo, Factoryko langileak, Fede Otaegi, Gaizka Orazabal, Garazi Fernandez, Gaueko Itzalak, Gautena, Gerardo Zarzuelo, Gizakien lurra, Gorka Lasa, Gomondona Txakolina, Gotzon Huizi, Gure Etxea tabema, Gurutze Irazustaren taldea, Haizea Del Olmoren taldea, Haizea Elizondo, Haizea Sarasola, Hauren Ongi Etorian parte hartutako familiei, Iban Urkizuren taldea, Idoia Garces, Igor Otaegi, Iker Alduntzin eta Jalgi, Iker Serrano taldea, Ikeme Etxeberria, Ikeme Etxeberriaren taldea, Ilargi tabema, Illarreta iturgintza, Imanol Rekondo, Iñaki Altuna, Iñaki Aruti, Iñaki Eizmendiren taldea, Iñaki Izquierdo eta bere taldea, Iñaki Uruzola, Iñigo Artola, Iñigo Orazabal, Insausti tabema, Intza Alkain, Intza Elkarte, Iraitz Aruabarrena, Iraitz Telleria, Irati Hernandez, Irati Perez, Iratxe Zelaia, Isa Fernandez de Agire, Itsaso Izagire, Itzartu, J. Manuel Zarautz, Jadise Janette, Jaione Txapartegiren taldea, Jaione Uruzola, Jaione Uruzolan taldea, Jalgune, Jenny Garcia, Jexus Balerdi, Jokin Ayerregarai, Jokin Telleria, Jon Gonzalez, Jon Iñaki Elexpuru, Jon Lasa, Jon Mujika, Jonathan Flores, Jone Artola, Jone Ieregi, Jone Ieregin koadrila, Jose Aizpurua Unanue Eraikuntzak, Joseba Zuaznabar eta Leire Amiano, Josu Martikorenaren taldea, Josu Serigrafia, Joxe Cuervo, Joxe Joakin Lasa, Joxe Krutz Labaka, Joxe Mari Berasategi, Joxe Mari Olalz, Joxean Lasa, Joxerra San Sebastian, Juan Gabarainen taldea, Juan Luis Eizmendi, Juan Luis Ieregi, Juan Mari Sarobe, Juantxo Prieto, Julian Pavo, Julian Urkiola, Kandy Sanchez, Kaneko, Karlos Zuñiga, Karlos Zuñiga, Katxiporeta, Kintoak, Kuadrillategiko gazteak, Kontxesi Beni-Otsoaren taldea, Kukuka Antzerki eta Dantza eskola, Labe goxo, Landaberi BHI ikasle eta irakasleak, Landaberi Guraso elkarte, Landaberi ikasle eta irakasleak, Langabetuen plataformako ordezkariak, Larraitz Sarobe, Lasarte-Oriako Udaltzainak, Lasarteko gazteen taldea, Lasarte-Oriako brigada zerbitzua, Liemi Arozena, Liemi Etxeberria,

# bihotzetatik plazara

Limusina Fran Rodriguez, Loli Razkinen taldea, Lordi Etxaondo, Lorena Garcia, Luis Mari Telleria, Luken eta Telmo Egizabal, Lurdes Garinen taldea, Lutxi Egiguren, Madona Kolokan egin zuten Zubietako taldea, Maialen Cuervo, Maider Galardi, Maider Oartzabal, Maider Seguro, Mailu Aruti, Maitane Rebe, Maite Labiano, Makulu Ken, Margarita Urbizuren taldea, Mari Jose Eizmendi, Mari Karmen Orazabal, Marian Bueno, Maribi Amundarain, Marifer Gorostiza, Marjo Goizuetaren taldea, Marjo Izagire, Marjo Vivas, Mertxe Gamendiaren taldea, Mertxe Petxarroman, Mertxe Rodriguez, Miel Zelaia, Mikel Arutin taldea, Mikel Loidi, Mikel Umuzola, Miren Cuervo, Miren Cuervo eta lagunak, Miren Egizabal, Musika Eskolako ikasle eta irakasleak, Nagore Perez taldea, Nahia Intxausti, Naiara Canseco, Naiara Mujika, Naroa Aldasoro, Nekane Lizaretaren taldea, Nekane Solano, Nerea Arteaga, Nora Izagire, Ogi Beni, Oihan Agiretxe, Oihan Agiretxen koadrila, Oihana Beltran, Oihana Pozueta, Oihane Garzia, Okendo Zinema taldea, Olaia Collazo, Olatz Urdanpilleta, Olga Blanco, Orvy, Ostadar Saiarre eta Mendi saila, Oto, Pablo Suberbiola, Paella egin zutenei, Palomo Linares elkarte, Pabi Etxeberria, Pabi Genaren taldea, Paula Gonzalez, Periko Irazustabarrena, Pili Landaren taldea, Pili Romero, Pili Torres, Pintxo-poteoko trikitilariak, Rafafia Magoa, Rosa Lopez, Sahara, Sara Karte eta Jesus Mari Perez, Sasoeta-Zumaburu Herri ikastetxeko ikasle eta irakasleak, Sausta Jatetxea, Saustatxo Elkarte, Semblante Andaluzelkarte, Lasartearra elkarte, Solaskideak, Sonia Rodriguez, Susana Rebe, Tolosa jatetxea, Tolosako Udala, Tomas Aruti eta Pontxo Morales, Tomas Urtzelai, Trikihots, Txanpi Bastanika, Txantxe, Txema Kontreras, Txiki, Txokoetako begiraleak, Udaberri, Udal Euskaltegia, AEK Muntteri euskaltegia, Udaletxea bisitatu zuten heritarrei, Unai de Andres Unai Muñoa, Unai Uruzola, Urdanpilleta aizpak, Urdine Fernandez, Urtzi Telleria, Usurbilgo Udala, Uxue Loinaz, Uxue Loinazen taldea, Uxue Iparagire, Vanesa Redondo, Virginia Tellaetxearen taldea, Vivi Valin, Xabi Etxezarreta eta harategiko lankideak, Xabier Amadoz, Xabier Umuzola, Xalba Otxandorena, Xirimiri Elkarte, Xumela eta Usurbilgo kantu jirakoak, Yanelle, Zabaleta Auzolan, Zarauzko Gaztetxea, Zeles Arteaga, Zero Sette akordeo orkestra, Zigor Iriondo, Zubietako guraso eta umeen taldea...

Ttakuneko langileak: Aitor Uriarte, Aitzol Zerain, Arantza Artola, Gorka Seguro, Jon Altuna Egitegi, Jon Altuna Iza, Jonpe Artetxe, Junkal Perez, Maider Azumendi, Nahia Inza, Nerea Elizagire, Pili Bermejo



Zortzikoteko kideak: Agus Mujika, Bea Egizabal, Enara Ieregi, Joxe Mari Agirretxe, Martin Anso, Rebeca Garces, Rosa Elizondo, Veronica Lopez

...eta eskertza zabal honetan zuetako hainbat eta hainbat izendatu gabe geratzen zaretenoi, Eskerrik Askoooooooooooo!!!

....baita ere plazaratu zineten ikusle eta parte hartzaile guztiei!!!